

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3962

131/2016 DEKRETUA, irailaren 13koa, Estatuko Administrazio Orokorrak Pasaia-ko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan duen kide bat berritzeko dena.

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak interes orokorreko portuak arautzen ditu atariko tituluaren II. kapituluaren II. artikuluan; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, Bilbokoa eta Pasaia-koa sartzen ditu portu horien artean.

Estatuaren lurralde-antolaketa ikusita, eta interes orokorreko portuek bakoitzak bere autonomia-erkidegoan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak zenbait neurri ezarri ditu erkidegoek portu-agintaritzen antolakuntzako egituretan parte-hartze handiagoa izan dezaten, agintaritza horiek baitira portuak zuzentzen dituzten organo publikoak.

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 30.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera:

«1.— Administrazio Kontseilua hurrengo kideek osatzen dute:

a) Entitatearen Burua, Kontseiluarena izango dena.

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Gutxienez 10 eta gehienez 13 kidek. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da kopuru hori. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopurua ezartzea, baita kideak izendatzea ere.

2.— Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek aurreko paragrafoko c) idatzi-zatian aipatu diren kideak izendatuko dituzte hurrengo irizpideak errespetatuz:

a) Estatuko Administrazio Orokorra ordezkatzeko dute itsas kapitainak ez ezik, beste hiru kidek, eurentariko bat estatuko abokatua izango dela, eta, beste bat, Estatuko Portuak erakunde publikokoa.

b) Autonomia-erkidegoa kide horietako lauk eta lehendakariak ordezkatzeko dute.

c) Kanariar uharteetan, kabildo bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuko zerbitzugunea hartzen duten udalerriek kontseiluaren gainerako kideen % 33ko ordezkartza izango dute. Zerbitzugunea udalerrri batean baino gehiagotan kokatuta egonez gero, ordezkartza, lehenik, portu- agintaritzak administratutako portuari edo portuei izena emandako udalerriri edo udalerriei egokituko zaie; ondoren, gainerako udalerriei, zerbitzugunearen eraginpean duten azalerarekiko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen % 66 honako hauen ordezkartzari egokituta izendatuko dira: Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberei, orain Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganbera Ofizialei, enpresa- eta sindikatu-erakundeei, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoei.

Kideen izendapena nahitaez egin beharko da administrazio-kontseiluan ordezkatuta dauden administrazio publikoen eta erakunde nahiz antolakundeen proposamena kontuan hartuta. Estatuko Administrazio Orokorraren kasuan, proposamen hori Estatuko Portuak erakunde publikoaren lehendakariak egingo du.

Administrazio-kontseiluko kideen izendapenak, 1. paragrafoko c) idatzi-zatiak aipatutakoek, lau urteko iraupena izango dute, berriztatzeko aukerarekin, hurrengo paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Kontseiluko kideak kargutik kentzea autonomia-erkidegoko organo eskudunak erabakiko du, mahaikide horiek ordezkatzeko dituzten organizazio, antolakunde eta erakundeek hala proposatuta.»

Arau horietan ezarritakoa betetzeko, Estatuko Portuen lehendakariak Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan Estatuko Administrazio Orokorra ordezkatzeko duen kide bat izendatzeko proposamena jakinarazi dio Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuko 4. artikuluan eta Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2016ko irailaren 13an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Ondoren zehazten den pertsona Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide berriro izendatzea, aipatzen den zuzenbide publikoko entitate juridikoak eskatuta eta irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.2. artikuluan aurreikusitako moduan.

– Estatuko Portuen Lehendakariak eskatuta: Jacobo Caparros Ruiperez jauna.

AZKEN XEDAPENA

Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko presidenteari kide bat berriro dela jakinarazten zaionetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 13an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.